

AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEAREN BILTZARRA
Bordele, 2014ko apirilaren 28a

EUSKO JAURLARITZAK ETA AKITANIAKO ESUALDE KONTSEILUAK
EUROESKUALDEAREKIN DUTEN KONPROMISOA BERRETSI DUTE BORDELEKO GOI
BILERAN

Iñigo Urkullu lehendakaria, Euroeskualdearen presidente

Akitania-Euskadi Euroeskualdeak goi-bilera egin du gaur Bordelen. Akitaniako Eskualde Kontseiluko presidente Alain Roussetek Euroeskualdeko presidentetza Euskadiko lehendakariari eman dio. Hala, Iñigo Urkullu Euroeskualdeko presidente izango da datozen bi urteetan.

Bileran, Roussetek eta Urkulluk beren **gobernuek Akitania-Euskadi Euroeskualdea indartzen jarraitzeko duten konpromisoa** berretsi dute. Izan ere, lurralde-, gizarte- eta ekonomia-koheren handiagoa lortzeko indarrak batu dituzten Europako bi eskualde mugakideren lankidetzaren eta elkarlanerako organoa da.

Bileran Akitaniako Eskualde Kontseiluko ondoko kide hauek ere izan dira: presidenteorde nagusi eta azpiegituren eta garraioen arduradun Bernard Uthurry, presidenteorde eta Europako eta eskualde mugakideen eta eskualde arteko lankidetzaren arduradun François Maïtia, garraio-azpiegituren eskualdeko kontseilari Mathieu Bergé, Europako gaietarako zuzendari Bernard Lange eta Europako gaietarako eskualdeko ordezkari Laurent Rey Lescure.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzatik, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu Ana Oregi, Kanpo Ekintzako idazkari nagusi Marian Elorza, Europako gaietarako zuzendari Mikel Antón eta mugaz gairako lankidetzaren arduradun Rafael Hueso izan dira.

Roussetek eta Urkulluk azaldu dute **2011ko abenduan, Euroeskualdea sortzean, abiarazitako proiektuetan lanean jarraitzeko borondatea** dutela. Izan ere, Akitania eta Euskadi eskualde mugakideak elkarlanean aritu dira 1989. urteaz geroztik. Hurrengo hauek dira proiektuok:

- Euroeskualdeko sare sozioekonomikoko **mugaz gairako lankidetzako proiektuetarako laguntzak**, besteak beste, goi mailako irakaskuntzaren, ikerketa eta garapenaren, garapen ekonomikoaren, turismoaren, ingurumenaren, kulturaren, gizarte-ekintzaren edota hizkuntza-politikaren alorretan.
- **Ekainean Akitania-Euskadi 2020 plan estrategikoa onartzea**, Europa 2020 esparruan. Planak 2020. urtera arteko Euroeskualdearen ekintza-ildoak zehaztuko ditu.
- **Sareen sorrera eta indartzea sustatzea**, balizko bazkide estrategikoen arteko proiektuak sortzen laguntzeko.

- **Euroeskualdea ezagutaraztea**, proiektua gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren eragileen artean ezagutarazteko, guztia ere ekintzailatzeko, aurrera egiteko eta lankidetzan aritzeko arloa espazioa aurki dezaten.
- **Trenbide loturaren alde egiten jarraitzea**. Euroeskualdearen helburu nagusietako bat Europako erakundeetan Atlantikoko ardatzaren abiadura handiko trenaren alde egitea da; hau da, Europako hego-mendebaldeko abiadura handiko trenaren proiektua, Paris eta Madril artekoa, lehentasuna izan dadin haientzat.

Abian dauden proiektu horiez gain, ordezkariek **Euroeskualdearen erronka berriak ere jorratu dituzte. Hala, presidentetzaren arduradun berriak, Eusko Jaurlaritzak, hurrengo urteetan landu beharko dituzten arloak identifikatu ditu :**

- **Pluraltasuna eta kultura-aniztasuna bultzatzea eta Euroeskualdeko hiru hizkuntzak erabiltzea**, administrazio publikoan eta hezkuntzan, adibidez, Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna betez.
- **Euroeskualdearen gobernu-eredua hobetzea**, bi lurraldeetako erakundeen lankidetzari handitzeko, mugaz gaindiko oztopoei aurre egite aldera.
- **Osasunaren arloko memoranduma** gaixotasun kronikoak dituzten pertsonei ematen zaien arreta hobetzeko eta haien ongizatea handitzeko, bai eta berrikuntza teknikoei eta antolakuntzako berrikuntzei balioa emateko ere. Memoranduma aurten sinatuko dute bi gobernuek.

Horretarako, 2014an Euroeskualdeak 1,6 milioi euroko aurrekontua izango du. Horietatik 1,1 Eusko Jaurlaritzak eta Aquitaniako Eskualde Kontseiluak jarri dituzte erdibana. Gainontzekoak aurreko urteetako eta europar funtsetatik etorritako diruak dira.

2013KO JARDUEREN BALANTZEA

Topaketan, Alain Rousset presidentek Euroeskualdeak joan den urtean gauzatu dituen jardueren nagusien berri eman du:

- **Diru-laguntzen deialdia**: 900.000 euro 42 proiektutarako (21.500 €-ko batez besteko laguntza). Hiru talde nagusitan sailkatzen dira:
 1. **Goi mailako irakaskuntza, ikerketa eta berrikuntza teknologikoa** (14 proiektu eta guztira 402.815 €).
 2. **Ekonomia, garapen jasangarria, nekazaritza, ingurumena eta turismoa** (9 proiektu eta guztira 234.687 €).
 3. **Kultura, kirola, hezkuntza eta gazteria** (19 proiektu eta guztira 249.424 €).
- **2014-2020 aldirako Akitania-Euskadi Euskoeskualdearen plan estrategikoa prestatzea eta sortzea**, 2013ko urritik 2014ko ekainean onartu arte. Online kontsulta publikoko parte-hartze prozesua antolatu zen, eta Akitaniako eta Euskadiko sektore sozioekonomikoetako ordezkariek osatutako hainbat eztabaida-talde osatu dira.

- **Transfermuga ikerkuntza-proiektua:** Mugaz gaindiko herritarren mugikortasunari buruzko azterlanak, Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren garraio-eskaera kudeatzeko arazoizko eredia zehazten lagunduko du. Baiona-Donostia korridoreko bidaiariaren mugaz gaindiko joan-etorriak aztertu dira. Azterlanak ondoko hauek proposatzen ditu:
 - Hurbileko garraio-eskaintza sortzea.
 - Distantzia ertaineko mugaz gaindiko ibilbideak gehitzea.
 - TER eta Euskotrenen arteko aliantzak hobetzea eta egokitutako tarifak diseinatzea.
 - Garraiobideei buruzko informazioa erraztea.
- **«Euroeskualdeko zifrak» azterlana:** Gipuzkoako eta Baionako merkataritza-ganberek lankidetzan egindako azterlan estatistiko batek bi eskualdeei buruzko datu nagusiak biltzen ditu (lurraldea, biztanleria, bizi-baldintzak eta estiloa, garraioa, hezkuntza, berrikuntza eta teknologia, ekonomia eta lan-merkatua). Elkarrekin proiektuak egiteko tresna garrantzitsua da.

BISITALDIA ABIADURA HANDIKO TRENAREN OBRETARA

Bestalde, Iñigo Urkulluk eta Alain Roussetek abiadura handiko trenaren obrak bisitatu dituzte. Lehenik, airetik, helikoptero batetik, Bordeleko inguruko obrak ikusi dituzte, eta, ondoren, Dordoinako biaduktuko ibilbidea oinez egin dute.

Hala, bi gobernuek tren-lotura Euroeskualdearen epe ertaineko eta luzeko lehentasuna dela erakutsi dute, eskualdeak lotzeaz gain, Europarekin ere lotuko dituelako.

AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEA

Akitania-Euskadi Euroeskualdea 2011ko abenduan sortu zuten, 25 urtez lankidetzan aritu ondoren (Nafarroako Foru Erkidegoa ere lankidetzan aritu zen 1992 eta 2000 artean). Lankidetzari esker, mugaren bi alboetako eragileek proiektuak gauzatu ahal izan dituzte elkarrekin (unibertsitateak, enpresak, teknologia-zentroak, trebakuntza-zentroak, kultura-elkartek, antzerki-taldeak, kirol-taldeak...).

Hitzarmena eta estatutuak 2011ko abenduan sinatu zituzten. Euroeskualdearen helburuak, organoak eta funtzionamendu-erregimena biltzen dituzte, besteak beste. Egoitza Hendaian dago.

Euroeskualdearen Asanblea lurralde bakoitzeko hamarna kidez osatuta dago, eta presidentetza bi urtetik behin txandakatzen dute bi lurraldeek.

CUMBRE EURORREGIÓN AQUITANIA-EUSKADI
Burdeos, 28 de abril de 2014

**EL GOBIERNO VASCO Y EL CONSEJO REGIONAL DE AQUITANIA RATIFICAN SU
COMPROMISO CON LA EURORREGIÓN EN LA CUMBRE CELEBRADA EN BURDEOS**

El Lehendakari Iñigo Urkullu, nuevo presidente de la Eurorregión

La Eurorregión Aquitania-Euskadi ha celebrado hoy en Burdeos la Cumbre en la que presidente del Consejo Regional de Aquitania, Alain Rousset ha traspasado la presidencia de la Eurorregión al Lehendakari de Euskadi, Iñigo Urkullu, para los próximos dos años.

Durante el encuentro, ambos presidentes han ratificado el **compromiso de sus Gobiernos en seguir reforzando la Eurorregión Aquitania-Euskadi**, un órgano de cooperación y colaboración transfronteriza entre dos regiones europeas que suman sus fuerzas para una mayor cohesión territorial, social y económica.

En la reunión han estado también presentes, por parte del Consejo Regional de Aquitania, el vicepresidente primero y responsable de infraestructuras y transportes, Bernard Uthurry, el vicepresidente y responsable de Europa y cooperación transfronteriza e interregional, François Maïtia, el consejero regional -infraestructuras de transporte- Mathieu Bergé, el director de Asuntos Europeos, Bernard Lange y el delegado regional para Asuntos Europeos, Laurent Rey Lescure.

Por otra parte, en nombre del Gobierno Vasco, han asistido la consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, Ana Oregi, la secretaria general de Acción Exterior, Marian Elorza, el director de Asuntos Europeos, Mikel Antón, y el responsable de la Cooperación Transfronteriza, Rafael Hueso.

El presidente Rousset y el lehendakari Urkullu han expresado la **voluntad de seguir trabajando en los proyectos iniciados desde que en diciembre de 2011 se constituyera la Eurorregión** (e incluso de previamente desde que naciera en 1989 la cooperación transfronteriza entre Aquitania y Euskadi). Esos proyectos, son:

- **Las ayudas a proyectos de cooperación transfronteriza** del tejido socioeconómico de la Eurorregión, en ámbitos como la enseñanza superior, la I+D, el desarrollo económico, el turismo, el medio ambiente, la cultura, la acción social, o la política lingüística.
- **La aprobación en junio del Plan Estratégico Aquitania-Euskadi 2020**, dentro del marco Europa 2020. El plan definirá las líneas de acción de la Eurorregión hasta el año 2020.
- **Fomentar la creación y consolidación de redes** que contribuyan a generar proyectos entre potenciales socios estratégicos.

- **Posicionamiento de la Eurorregión**, con el objetivo de dar mayor visibilidad pública del proyecto, socializarlo para que agentes sociales, económicos y culturales encuentren en él un espacio de emprendimiento, progreso y cooperación.
- **Continuar apostando por la conexión ferroviaria**. La Eurorregión tiene entre sus principales objetivos seguir trabajando ante las instancias europeas a favor del eje atlántico europeo de la Alta Velocidad Ferroviaria y para que el Proyecto de Alta Velocidad del Sudoeste Europeo, Paris-Madrid, se tome como una prioridad.

Además de los proyectos ya en marcha, ambas delegaciones han compartido los **nuevos retos de la Eurorregión, de manera que la nueva presidencia, que recae en el Gobierno Vasco, ha identificado nuevos ámbitos de actuación en los que trabajar en los próximos años:**

- **El impulso de la pluralidad y diversidad cultural y el uso de las tres lenguas** de la Eurorregión en los territorios que la conforman, en ámbitos como la administración pública y la educación, en cumplimiento de la Carta Europea de las Lenguas Minoritarias.
- **Mejorar el modelo de gobernanza de la Eurorregión**, orientado a una mayor colaboración de las instituciones de ambos territorios, que ayude a hacer frente a todavía existentes obstáculos transfronterizos.
- **Memorando de entendimiento en materia de salud** para favorecer una mejor atención y el bienestar de las personas con enfermedades crónicas, y poner en valor las innovaciones técnicas y organizativas. Dicho memorando será firmado este año por ambos gobiernos.

Para todo ello, la Eurorregión contará en 2014 con un presupuesto cercano a 1,6 millones de los cuales, 1,1 los aportan el Gobierno Vasco y el Consejo Regional de Aquitania a partes iguales. El resto proviene de remantes de años anteriores y fondos europeos.

BALANCE DE ACTIVIDADES 2013

Durante el encuentro, el presidente Alain Rousset ha informado de las principales actividades desarrolladas por la Eurorregión en el pasado ejercicio:

- **Convocatoria de ayudas:** 900.000 euros destinados a 42 proyectos cofinanciados (con una ayuda media de 21.500€). Se enmarcan en tres grandes grupos temáticos:
 4. **Enseñanza superior, investigación, innovación tecnológica** (14 proyectos, por un total de 402.815€).
 5. **Economía, desarrollo sostenible, agricultura, medio ambiente y turismo** (9 proyectos por un total de 234.687€).
 6. **Cultura, deportes, educación y juventud** (19 proyectos, por un total de 249.424€).
- **Preparación y elaboración del Plan Estratégico de la Eurorregión Aquitania-Euskadi 2014-2020**, desde octubre de 2013, hasta su aprobación en junio de 2014. Ha

existido un proceso participativo de consulta pública online y se han realizado diversos “focus groups” constituidos por representantes de los sectores socioeconómicos de Aquitania y Euskadi.

- **El proyecto de investigación Transfermuga.** Estudio sobre la movilidad ciudadana transfronteriza que contribuirá a definir un modelo racional de gestión de la demanda de transporte en la Eurociudad Vasca: Baiona-Donostia. Se han analizado los desplazamientos transfronterizos de viajeros y viajeras en el corredor Baiona-Donostia. Este estudio propone:
 - Crear una oferta de transporte de proximidad.
 - Aumentar las rutas transfronterizas de media distancia.
 - Mejorar las alianzas TER-Euskotren y diseñar tarifas adaptadas.
 - Hacer más sencilla la información sobre los transportes.
- **Estudio “La Euroregión en cifras”.** Estudio estadístico realizado en el marco de cooperación entre las Cámaras de Comercio de Gipuzkoa y Baiona (iniciativa Bihartean), que recoge los principales datos de las dos comunidades (territorio, población, condiciones y estilo de vida, transportes, educación, innovación y tecnología, y economía y mercado de trabajo). Constituye una importante herramienta para avanzar en proyectos comunes.

VISITA A LAS OBRAS DE LA ALTA VELOCIDAD FERROVIARIA

El lehendakari Iñigo Urkullu y el presidente Rousset han visitado además las obras del Tren de Alta Velocidad, sobrevolando primero en helicóptero las inmediaciones de Burdeos, y después recorriendo a pie el tramo del viaducto de Dordoña.

Ambos gobiernos muestran así que la conexión ferroviaria es la gran prioridad de la Euroregión a medio y largo plazo, que supone una vertebración de ambos territorios y su enlace con Europa.

LA EURORREGIÓN AQUITANIA-EUSKADI

La Euroregión Aquitania-Euskadi nace en diciembre de 2011, tras 25 años de cooperación transfronteriza entre Aquitania y Euskadi (entre 1992 y 2000 también formó parte de esta cooperación la Comunidad Foral de Navarra). Esta cooperación ha permitido el desarrollo de proyectos entre actores de ambos lados de la frontera (universidades, empresas, centros tecnológicos, centro de formación, asociaciones culturales, grupos de teatro, clubes deportivos...).

El **Convenio y los Estatutos** fueron firmados en diciembre de 2011. En ellos se recogen los objetivos, órganos y régimen de funcionamiento, entre otros aspectos de la Euroregión. La sede se sitúa en Hendaia.

La **Asamblea de la Euroregión**, está compuesta por 10 miembros de cada territorio y su presidencia es rotatoria por periodo de dos años.